



Prostituzioa

Lanbide ala esplotazio?

Munduko lanbiderik zaharrena deritzonari munduko leku gutxitan aitortzen zaio lanbide izatea. Aldi berean, herrialde gutxiak daukate erabat legez kanpo. Politikariek ahopeka onartzen dute haren “beharra”, baina lar begi-bistakoa izan ez dadin neurriak hartzen dira. Horren aurrean, sexu-lana arautzea eskatzen dute batzuek, horretan ari direnak baldintza duinetan jardun dezaten. Beste batzuen ustez, prostituzioa guztiz ezeztatu behar da, eta inolaz ere lanbidetzat hartu. Espainiako Estatuan, oraingoz, ez bata ez bestea.

UNAI BREA

Argazkiak: Iñigo Azkona


JOAN DEN OTSAILEAN, Espainiako Diputatuen Kongresuak ezezkoa eman zion prostituzioa lanbide arrunt modura arautzeari. Aurretik, hamar hilabeteko eztabaida izan zen horretarako propio sortutako Parlamentuko lantaldean. Auzia pil-pilean dago Espainiako Estatuan, Kataluniako Generalitateak prostituten lan-baldintzak arautzeko lege aurreproiektua aurkeztu zuenetik. Madrilgo Gobernua ez da horren aldekoa, eta prostituzioa, legez kanpokoa izan gabe ere, oztopatu duen neurriak hartzea du nahiago.

Eztabaida honek, hala ere, badu beste bat aurretik: prostituzioak existitu egin behar du?

2001ean, Emakundek gaiari buruzko txostena plazaratu zuen. Bertan jaso ziren prostituzioarenganako jarrera nagusiak, Askabide elkarteak urtetan argitaratutako zenbait txostenen arabera. Jarrera horiek alderdi bitan banatu eta bakoitzaren barruan bina joera bereiz daitezke. Mintza gaitezen horietako bakoitzaz:

Abolizionismoa

Maila bi bereizten ditu Emakunderen txostenak: erabateko abolizionismoa eta abolizionismo klasikoa. Lehenbizikoa prostituzioa zigortzearen alde dago, lege-urratze penal



edo, behintzat, administratibotzat hartuz. Badira bezeroei ere zigorra ezarri behar zaie-la diotenak; hala da Suedian, esaterako. Abolizionismo klasikoak, berriz, prostituzioa debekatzea eskatzen du, horretarako erabiltzen diren guneak itxiz.

Tolerantzia

Hemen ere adar bi daude. Batak, erabateko tolerantziak, prostituzioa arazoa denik ukatzen du. Ez litzateke, beraz, inolako irtenbiderik bilatu behar. Beste ildo batek, tolerantzia erlatiboak, prostituzioa errealitate saihestezina dela aldarrikatzen du, eta haren inguruko alderdi guztiak (lana, osasuna...) arautzea. Emakunderen arabera, gizartean oso zabaldua dago prostituzioa saihestezina deneko ideia hori, harenganako jarrera nagusia gutxiespenezkoa izan arren. “Munduko lanbiderik zaharrena” izendapen horrek adie-

razten du, hain zuzen, prostituzioari egozten zaion ezinbestekotasuna.

Errealitatera hurbilduz gero, aurreko sailkapenaren mugak uste baino lausoagoak direla ikus daiteke. Elkarrekin hitz egin dugu, eta hasiera batean erraza suerta daiteke bakoitza joera batean ala bestean kokatzea, baina hori zurrunegia litzateke, bai batzuen bai besteen ordezkariak jakinarazi digutenez.

Lan-baldintza negargarriak

Askabide elkarteak urteak daramatza prostituzioan dabilzan emakumeekin lanean, haien beharrianak ezagutu eta ahal den heinean laguntzeko asmoz, informazioa emanaz batez ere. Marian Arias kideak esan digunez, “lanbidea ala esplotazioa” eztabaida ez dago inola ere itxita elkarre barruan. “Zaila da ‘abolizioa edo arautzea?’ galderari erabateko erantzuna ematea. Prostituzioaren oinarria

Kontxa Jenerala kalea: prostitutak espaloian

Bilbon, Gorteetako kalea izan da kaleko prostituzioaren gune nagusia. Azken urteotan hori aldatu egin da ordea. Bilbo Zaharra auzoa eraberritzen hasteaz batera, kalean zebiltzan prostitutak —lehen baino gutxiago, bestalde— leku berri bila hasi ziren. “Zabalkundea” Gorteetako kalearen mutur bietatik harago gertatu da. Alde batean, Miribilla auzune berria, gune zabal eta hutsez bete, parkeak nonahi eta dezente anonimitasuna. Beste aldean, guztiz kontrako: Abando auzoa, Bilbo erdi-erdia beraz, milaka oinezko eta hamaika leiho, zein bere begi pare duela errezelen atzean.

Hala, garai batean Bilboko klub gehienak biltzen zituen Kontxa Jenerala kalea bihurtu da, berriz, ikamika iturri. Klub bi baino ez dago orain bertan, eta horietako baten aurrean, espaloian bertan, bospasei prostituta ibiltzen da gauez, asteburuetan gehienbat. Ensanche auzokide elkarteko presidenteorde Alfonso Gilek dioskunez, “kexa asko helarazi diogu Udalari, ez neska hauek beren lana kalean egiteagatik, horrek

dakarren zenbait ondorioengatik baizik”. Alegia, sexu-jarduna autoetan, kale gorrian edo etxe bateko atarian; jazarpena ingurutik dabilen edozein gizoni, berdin bikotekidearekin edota seme-alabekin doanari ere... “Udaletxeak esan zigun prostituzioaren aurka ezin zuela ezer egin, baina egoera leuntzeko zer edo zer egingo zuela”, dio Gilek. Agintariek udaltzain patruilak ipini dituzte, bezeroak uxatze aldera. Prostitutak ere hanka egiten dute polizia-auto bat ikusi bezain laster, legez kanpoko ezer egiten ez badaude ere. Bizileku-baimenik ez, nonbait. Auzokideak, nolana, kexu dira patruilak oso noizbehinka baino ez direla agertzen.

Zenbaitzuk hipokrisia sumatzen du auzokideen protestetan. Askabideko Marian Ariasek adierazi digunez, “zalantza dugu emakume hauek benetan hainbeste arazo sortzen duten. Ulertzen dut prostitutak portaera desegokia badute auzokideak haserre egotea, baina susmoa daukat haserrearen zergatia emakume horiek han egote hutsa dela”. Udaletxea, berriz, mutu.

gizarte honetako bidegabekeria da, ez da zori hutsa prostituta gehienak emakumezkoak, pobreak eta etorkinak izatea, eta nik neuk prostituziorik ez egotea nahiago nuke. Baina hor daude, eta hor egongo dira, ia 1.000 emakume Bizkaia osoan, baldintza negargarrietan lanean, eta zerbait egin behar da horren aurka. Zerbait egite horri esaten diot nik arautzea, zeren, bestalde, nahasmena dago kontzeptuetan: gauza bat arautzea da eta beste bat legeztatzea”.

Mafien kontra, prostituten alde

Lanbroa talde feministak abolizionistatzat aurkezten du bere burua. Zuriñe del Cerro mintzatu zaigu haien izenean: “Batuetan prostituten alde ez egotea leporatzen zaigu, eta hori ez da inolaz egia. Gu emakume taldea gara, eta emakumeak dira gure lehentasuna. Baina emakume horiek esplotatzen dituzten mafien kontra gaude, horixe baita emakumeen aurkako indarkeriarik handiena”. Del Cerrok argitu nahi du norbera, askatasunez eta hala hautatu duelako, prostituzioan aritzearen aurka ez daudela. “Baina hala dabilzanak hutsaren hurrengoa dira, eta luxuzkoak ia beti”. Lanbroak ez du zalantzarik prostituta gehienak, kalean, klubetan, zein etxebizitzetan, mafiaren menpe dihardutela.

“Prostituzioaren oinarria gizarte honetako bidegabekeria da, ez da zori hutsa prostituta gehienak emakumezkoak, pobreak eta etorkinak izatea”

Marian Arias, Askabide

Kontxa Jenerala kalean dabilzan prostituten inguruko polemika puri-purian zegoela, Bilboko Udaleko ordezkari batek esan zuen hor dabilzan emakumeak beren kabuz ari direla, eta ez proxeneta baten esanetara. Hori, Zuriñe del Cerroren iritziz, ezinezkoa da: “Baliteke emakume bat bere kabuz jartzea kalean, baina ez dira igaroko bost minutu proxeneta bat hurbildu gabe, ‘zu norekin zabilta?’ galdetzeraz”. Lanbroak, honenbestez, azpimarratu egin nahi du beraiek ere prostituten bizi-baldintzak hobetzearen alde daudela, baina ezin dutela inola ere onartu prostituzioa lanbidetzat hartua izatea.

Jarrerak jarrera, bistan da bihar, eta etzi, prostituzioa izango dugula. Europako herrialde batzuek harenganako jarrera argiak dauzkate. Holandan, esaterako, legeztatua dago, baina hori, Marian Ariasek nabaritzen duenez, “ez die

kulturagenda

Uztailaren 1etik 15era



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Erakusketak:

Soinu dimentsioa

Artistak: Alien Productions, Mikel Arce, Andres Bosshard, Ramón González-Arroyo, Gary Hill, Tom Johnson, Donatella Landi, Bernhard Leitner, Alvin Lucier, Baudouin Oosterlynck, Paul Panhuysen, Manuel Rocha Iturbide, Isidoro Valcárcel Medina

Uztailaren 12tik Irailaren 15era.

Erakustaretoan



Aurora Bengoechea (1943-1991)


Bizitza pintatua

Uztailaren 11tik Irailaren 1era

Ganbaran

Orduetgia: asteartetik larunbatera
10:30-14:00 eta 16:00-20:30

(astelehen, igande eta jai egunetan itxita)



Kristobaldegi, 14 | 20014 donostia | www.arteleku.net

Tailerra

Linux Audio

Uztailak 18-20

Emailak: **Ixi Software eta GOTO10**

Koordinatzaileak:

Audiolab eta Enrike Hurtado

Orduetgia: astelehenetik ostiralera,
goizez eta arratsaldez.

Izena ematea: uztailak 13



Tailerra

Litografia

Abuztuak 6-31

Koordinatzailea: **Don Herbert**

Orduetgia: astelehenetik ostiralera,
goizez eta arratsaldez.



Izena ematea: uztailak 25

Prezioa: 78,13€



Olaberriako zirkuitua

Gida eskola Karting-a

Gainera auzoa, Z/G
20212 Olaberria
☎ 943 16 08 62
www.vilarinomotor.com
info@vilarinomotor.com

Egunkariak, prostituten iragarki-aula

Otsailean, Madrilgo Kongresuak prostituzioa edozein lanbide arrunt bezala arautzeari ezezkua emateaz batera hainbat neurri iragarri ziren sexu-esplotazioari aurre egiteko zein sexu-zerbitzuen kontratazioa gutxitzeko. Horien artean, zerbitzu horien iragarkirik ez argitaratzeko eskatuko zaie egunkariei. Zuriñe del Cerroren aburuz, prostituzioarengako moral bikoitza oso argi erakusten du zenbait egunkarietako *Relax* sailak. Ideologikoki eskumara lerratutako hedabideetan ageri da mota horretako iragarki gehien, nahiz eta eskumako alderdiak prostituzioa ezeztatzearen aldekoak diren. “Jardunaldi batzuk antolatu genituen eta Suediako emakume bat etorri zitzaigun”, dio del Cerrok. “Harrituta zegoen hainbeste iragarki ikusita. ‘Egunkari honek egiten duena salatu egin behar da’, zioen”. Lanbroako kideak ez digu kopuru zehatzik aipatu, eta guk geuk ere ezin izan ditugu eskuratu, baina iragarkion bitartez egunkari batzuek egunero milaka euro jasotzen dutela eman digu aditzera. Orrialde horiei begiralditxoak eginda, erraz sinestekoa da.

ezer onik ekarri prostituta gehienei; %90 legez kanpoko etorkinak direnez, legeztaizeak ez die ezertarako balio”. Beste muturrean dago Suedia, herrialde abolizionista; han, bezero izatea legez kanpoko da. Ez, ordea, itsasontziz joatea alboko herrialde ez abolizionistaren batera. Eta halaxe gertatzen da, Ariasek dioenez.

Espainiako Estatuan, berriz, prostituzioa halako linbo batean dago legalki. Horregatik, maiz, erakundeak uzkur agertzen dira hartaz galdetuz gero. Madrilgo Kongresuaren otsaileko erabakia adibide esanguratsua da: ez arautze, ez debeku. Alderdi politiko batzuek gaiari buruzko eztabaida latzak dituzte oraindik, jarrerak bateratu ezinik. Hala omen da PSOEn eta IUn, esaterako; abolizionistak eta “arauzaleak” aurrez aurre, eta adostasunik ez. PP, berriz, abolizionista da. “Sarritan, prostituzioa ezeztatzearen aldeko guztiok eskumakotzat gauzkate” –kexu da Zurile del Cerro–, eta hori ez da hala. PPren arrazoiek ez daukate zerikusirik gureekin. Haienak erlijioarekin eta moralarekin dauka zerikusia, eta, gaineratu dezagun, moral bikoitza da”. Hori bai, botoak boto, eta denak pozik eduki behar, baita prostituten bezeroak ere. ■